

BEZERO ERLAZIOAK



Gure bezeroen **erlazioa** guztiz **zeharkakoa** da. Produktuak, esan bezala, bi modutara saltzen ditugu: online bidez eta denda fisiko batean.

Gure produktuak fisikoki saltzeko, **Ormendi Kirolak** izeneko herriko denda baten bidez saltzen ditugu. Horren ondorioz, ez bata eta ez bestean, ezingo ditugu bezeroak ikusi ezta haiekin komunikazio zuzena izango.



Gure web-orrian; **itzulpen sekzio** bat daukagu. Eskatutako produktua iristerakoan, espero zenuena ez bada edo talla nahastu baduzu, dirua itzultzeko edo beste produktu berri bat eskuratzeko aukera izango duzu. Produktua itzuli ahal izateko, ezin izango da erabilia egon.



Horrekin batera, **sare sozialen** bidez edo **gmail-en** bidez, **komunikatzeko** aukera dugu, **galderak** argitzeko eta produktuei buruz informazio gehiago emateko. Hala ere, bezeroak galderak izanez gero, Ormendi Kirolak dendako langileek, gure enpresari buruzko informazio nagusia eskaintzeko gai izango dira.